

Otsoak eta Artzak

Biaramonean, umeak Leonce'ren ondoan exeri ziranean, au asi zan bene-benetan.

—Adizkideok, bai dakit nere ipuiak zer izen ete duan jakin-miña dezutena: Bere izena txit izugarria da.

—Ay, nere Jaungoikoa! deadar egiñ zuan Jeanne'k.

—Ez izutu, Jeanne, esan zion Leonce'k, nik esan bear detan ipuiko otsoak eta artzak, zorionez, emendik urruti dira; Lithuanie'n, Errusia'ri dagokion lurraldean, an bizi dira. Eta nere ipuiak «Otsoak eta Artzak» izena du. Entzun ondo eta ez galderik egiñ.

Marguerite'k (parrezka).

—Orixe da arpegi bakana daukazuna, orixe!

Leonce'k.

—Nik betiko arpegia daukat gaur ere.

Marguerite'k.

—Ez, ez, zuk gaur oso arpegi itzala daukazu. Bai dirudi epaitu ta gaitzetsi (1) egiñ bear gaituzula.

Leonce'k (oso alai).

—Orixe ta bera. Nik nere edestia entzuztera gaizketzen zaitzudet, entzuteko duin zeratela epaitu ondoren.

Elisabeth'ek.

—Ay zer gauza polita. Entzun dayogun.

Leonce'k.

—Bein bizi zan Errusia'n sendi edo pamilya bat, Ego-aldeko lurralde eder eta bigun batean. Sendi au ez zen añ aundia ere; aita, ama, iru seme, alaba bi, eta arreba iñosu bat ziran.

Sophie'k.

—Etzala sendi aundia diozu? Zenbatekoa bear dezu bada orduan andia izateko?

Leonce'k.

—Sophie, Sophie, esan det ez ezertxo ere galdetzeko... Nik esan nai det sendi au etzala aundia Errusiarako, alegia; lurralde onetan amabi ta amalau ume dun sendiak asko izan oi dira ta.

Henriette'k.

—Ederra astakeria!

Leonce'k.

—Ori ez da astakeria; neuk ere bai dut iseko bat Errusia'tarra, amazapi seme-alaba dituana. Guazen ba! Ixillik oraiñ! Sen-

di onek Lithuanie'ra juan bearra izan zuan aldi luzetxo bat igarotzera, aitona zaar bat, an, gaxorit zeukatelakoz.

Jeanne'k.

—Zer gaitz zuan ba?

Leonce'k.

—Ur-gaitza (2). Sabel dana urez beteta ta andituta, eta itto egiñ bear. Augaitik bada Lithuanie'ra zijoazen; Elurrak ordurako lurra estali zuan. Ipiñi zuten, sendi guztia artzen zuan zaldigurdi (3) aundia patiñen gañean.

Henri'k.

—Zer dira patiñak, zu?

Leonce'k.

—Patiñak? Elurra ta izotza egiten dituanen, zaldigurdiari erruberen azpian ipintzen zaizkioten galtzairuzko gauza batzuek. Oñetakoak bezela. Beña ez dezazutela ezer geyago ezer ere galdetu; aspertu egiten nazute bada! Ez dakit nun nintzan ere... Zaldigurdi aundia ipiñi zuten patiñen gañean; lotu zizkioten zortzi zaldi on eta indartsuak, eta bai zijoazen astiro-astiro bidea luzea zalakoz eta zaldien indarrak basoa igarotzeko gorde bear. Bein basora eldu ezkeroz, zaldi-zañak (4) zaldiak gogor jo bear zituan eta ariñ ibilli, otsoai, taldean elkartu ta zaldigurdiari jarraitzeko astirik ez ematearren. Esan bear dizutet bada, lurralde onetako basoak dana otsoz beteak dirala. Bat, bi, naiz iru billatzen diranean ez da ezeren bildurrik, otsoak, taldean dabilzanean bakarrik ausartzen diralakoz zaldigurdien aurka.

Eldu dira basora; zaldizaiak geldi eraso ditu zaldiek miñutu batzuetan, eman dioe garagarra, ipiñi dizkiote ao-burniak (5) eta sartu dira basoan. Zaldiak ariñ dijoaz galapada baten, azkartasun berdiñean. Zaldizaia pozik zijoan legua erdiren bat besterik palta ez zalakoz basotik erteteko; bañ bat-batean, urrutian; ououou! orroa izugarria entzun zen.

«Otsoak!! deadar egiñ zuan zaldi-zaiak; otsoak!!!

(2) *Hydropisie.*

(3) *Coche.*

(4) *Cochero.*

(5) *Frenos.*

(1) *Kondenatu.*

—Jo zaldiak, Nikita, deadar egin zion nagusiak (Bogoslafe jauna zen bere izena) jo, erruki gabe alegindu ari basotik lenbait-len ertetera, otsoak urreratu baño len».

Nikita'k indartsu erabili du latigua; zaldiak ikara baten aizea beziñ ariñ dijoaz. Baña orroak eta uluak urreratzen datoz. Bildur izuak egoak eman dizkioe zaldia. Nikita'k noizean-beiñ atzerantz begiratzen zun. Ez zuan otsoarik ikusten, baña burua biratu zuan batean deadar egiñ zuan.

«Emen datoz, emen dira!! Urrutira, igittu egiten dan orban beltz aundi bat dakust. Bosteun bait-dira gutxienez.

—Galduak gera! zion Bogoslafe jaunak.

—«Ez, ene nagusi maitea; gaizkatuko gera oraindik, Jaungoikoak laguntzen ba'digu. Nik bai dakit basetxe bat, emendik eun pausora. Ate aundia zabalik ba'dago gaizkatuak (6) gera».

Eta zaldiak indar berriaz astindurik, baxterantz zuzendu zituan.

Ate aundia zorionez zabal-zabalik zegoan, bidaztiari ariñ sartzeko erraztasuna ematearren, eta onetara otsoak kalterik eziñ egiñ izateko eran izan zitezten.

Otsoen zaunka ta orroak geroago ta urreago entzuten ziran; gauza beltz bildurgarri ura (zulo taldea) aurrea zetorren.

Nikita eldu zan ordea basetxera, eta sartu zuan zaldigardia barruan abiada izugarrian. Zaldiak, eraman zuten zalaparta eta izuan jo zuten buruaz aurreko orma ta bera erori ziran zortzirak. Nikita, zaldiari jaramonik egiñ gabe, jetxi zen zalburditik, eta arnasik artzeko asti gabe juan zan atek itxitxera. Bat itxi zuan; otsoak gañian ziran; bultzat zion beste ate erdiari, ta bat-batean izan ziran Nikita'k morrollua ematea ta otsoak atea ikutzerano urreratutzea. Miñutu laurden bat geyago bear izan ba'lu otso amorratuak barruan izango ziran.

Bogoslafe jauna, atetxo irekiaz jetxi zen zaldigurditik, Nikitari atea itxitzen laguntzera, ta bien artean, gogor aldeztu zuten atea, otsoak, bultzaka hota ez zezaten. Orduantxe, eta ez arterano, arnasa artu zuten lasai xamar. Ene, ura izan zan estuasun larria!!

Basetxea aundia zan, illun xamarra, goigoian zeuzkan leyo txiki-txiki batzuek, otsoak barrura eziñ sartu izateko eran.

Sendi gustia, apur bat baretu zanean, danak belaunikotu ta Jaungoikoa eskertu zu-

ten, arrixku izu artatik onez atera zituala-koz. Bereala nagusiak besarkatu zuan Nikita eta esan zion.

—«Ene, adizkide, i aiz Jaungoikoaren urrengo, gaizkatu gaitukana. Eta Berak, emendik bizirik ateratzen ba'gatzibek, nik askatasuna emango diat eta baita dirua ere, iñoren mendeen bizi ez adiñ.

Nikita belauniko jarri zan, bere nagusien eskuari mun egin zion, begietako mal-koak esku gañaz legortu zituan eta zaldietara jun zan, erorita zeuden lekutik altxa ta ondo ipintzera.

Abere gaxuak dar-dar zeuden ikaraz; otsoen zaunkak eman zitoten bildurra, egiñ zuten ariñaketa, eta orma jo ta buruan artu zuten miña ainbesterañokoak.

Zokondo baten zegoan lastoaz, Nikita zaldia ari lo egiteko lekua antolatzen ari zan bitartean, Bogoslafe jaunak atera zituan zaldigurditik emazte ta umeak, berriro barrura sartuta zeuden ba, an seguruago egongo ziralakoan.

Ikusi ezazute basetxe au, esaten zien berak, ikusi ze gogorki, ta sendo egiña dagoan. Otsoak alperrik ekiño dute atzaparka ta bultzaka; ez dute orma abetan zularik egiñ al izango.

Bogoslafe andre ta umeak siñistu zuten noiz-baten, eta basetxeari bira osoa eman zitoten, eta oso baretuta gelditu ziran otsoak nundik sartu etzeukatelakoz.

—Zenbat denboran egon bearko ote degu emen? galdetu zuan Bogoslafe andreak.

—Ez dakit, erantzun zion senarrak; iñolaz-ere, otsoak emendik juaten ez diran bitartean, eziñ erten izango degu; nik ez dakit zer oitura dituzten otsoak onela etortzen direanean. Zer uste dek iñ, Nikita? Zenbat denboran egongo gaituk otsuok etxe inguruan ditugularik?

—Pertzonari jarraitu ta arrapatzen ez dituztenean, ez dakite aif laster iges egiten; denbora luzetxoan itxaroteko oitura dute. Biyar ere emen izango ditugu otsuok, beste bidazti batzuen atzetik juaten ez ba'dira beintzat; guk izan degun baño zoritzarraigodun bidazti errukarri batzuen ondoren.

—Zer uste dek, Nikita, basetxe onetan gaba igaro bearko degula?

—Bai, nagusi jauna, bai. Ni engañatu naitela, baña ez det siñistuko biyar baño len, gure etsayok bakean lagako digutenik. Eta biyar ere...

—Eta zer egiñ bear diagu? Ez geuk eta ez zaldiok ez ziukagu ez zer janik, ez zer eranik.

—Barkatu, nagusi jauna, zer jana bai degu; zaldigurdiak atzean dituan kutxa biak jakiz beteak ditut, eta edaria berriz, ura beñepen, bertan billatuko degulakoa nago. Otsoen igesi dijoazen bidaztientzat egiñdako basetxe abetan, ura izan dediñ beti arduratu izan dira ta. Emen ere izango da ura nun-edo-nun putzuren baten.

—Bai baiña, zaldi gaxo aberi zer emango diok ba?

—Nagusi jauna, garagar saku bat bai-det beintzat neure jarlekuen azpian; baiña zaldi kottauak ez dute batera jateko gogorik. Izutuak baidira! Etxateko berriz, zokondur osetan lastoa ugari dago. Ez, ez estutu, nagusi jauna, ez zaigu emen ezer paltatuko ta.

Bogoslafe andre ta umeeri bildurrak igesegiñ zioen zerbait, eta arratsalderantz gose zizala esan zuten, eta zer-edo-zer jango leukiela.

Nikita'k atera zituan kutxatik jatekoak; zaldietatik al zan urrutien zabaldu zuan lastoa lurren gañean, eraman eta ipiñi zituan alde batean ogia, okela otzak, lukainkak, opillak, ardoa ta garagardoa. Ura ere ekarri zuan, sokondo batean billatu zuan putsutik aterata.

Exeri ziran lurrean, lasto gañean, eta gogoz jan zuten, baiña ixill-ixillik, «ez itzik eta ez lurrunik».

Bogoslafe jaunak, gelditu ziran jakiak Nikitari eman zizkion, baiña onek gutxi jan zuan, eta arduraz gorde zituan azkenak.

«Jakiak gorde egiñ bearko ditugu, ez dakigu, ba, zer gertatu leikean. Otsok, basetxe ingurutik joateko» asmorik ez ba'dute, dituguen jatekoen bear izango gera noski, eta gañera... nork daki ba...?

Gaba eldu zanean otso taldea geitu egiñ zala zirudian, orroak indartsuagoak entzuten ziran beintzat.

Bogoslafe jaun-andreak eta euren umeak lasto gañean etzan ziran, euren estalkiaz estalduta. Nikita ez zen etzan; berak pixtu zuan sua itzali ez zediñ: «egurra eman eta egurra erre», ari zen.

Gaba igaro ta eguna zabaldu zuanean, otsoen orroak gutxituak ziran. Nikita'k ipiñi zuan orma kontra eskillera luze bat eta igo zuan goiko leio txiki batera, ia zenbat otso ote zeuden ikusteko asmoz. Guztiz izutu zen begiratu zuanean. Otsuok euren bizilekutat artuak zituzten basetxe inguruak.

Elur gañean, or-emen etzanda zeuden alde guztietan. Eun da ogeitairu zenbatu zituan, beste batzuek berriz, zugatze beste aldetik zeudelakoz ez ziran ondo ikusten eta eziñ zenbatu. Gizon bulartsu ura oso itun jetxi zan eskilleran bera.

—«Ay Nikita, ik ez dek ezer gauza onik ikusi: eure arpegian igertzen zaik, esan zion Bogoslafe jaunak.

—Or dagoz, nagusi, eta or egongo dira... Nik esango nizuke zerbait, nagusi jauna; gauza bat egiñ bear degu... Zaldiak galdu bear ditugu nai-ta-naiz-er.

—Eta zer aurreritzen diagu ba zaldiak ondatuta? Zortzi zaldik eziñ litekek laurreun edo bosteun abere goseti oien gosea asetu. Eta zaldirik gabe, nola joango gaituk geu emendik?

—Ara, zaldien paltik ez dezu izango, nagusi jauna, entzun nai ba'dirazu. Zaldiak ondo janda, ondo eranda daude, baita ere lo eginda. Nik, kanpora bialiko ditut lati-guaz jota; bi bakarrik lagako ditut barruan, ikusiko dezu zertarako. Zaldioak izutuko dira ezin geyago, an otsoak ikustean da etorri geran bidetik etxerantz asiko dira galopada bizian. Otso guztiak berriz, euren atzetik egiñ alean. Urrutiratzen diranean, nik artuko det zaldi bat eta auzoko errira joko det; eta an eskatuko ditut eskolta eta zaldi batzuek zuek emendik eramateko. Gaur illuntzerako ni ez ba'naiz agertzen eskolta eta zaldiaikiñ, orduan, nagusi jauna, zuk artu beste zaldia ta ernten, eta Jaungoikuen laguntzarekiñ, nik baño zori ohea izango dezu.

—Gizon ona ta biotz auididuna! zion Bogoslafe jaunak. Ik asmatu dekana ondo zio, baiña eure kaltean. Eziñ nezakek ire maitetasunak eskeintzen ditana artu. Neu izango nauk lenengoz emendik ertengo duana.

—Ez, nagusi, ementxe dago bada arrixkurik auidiena, otso guztiak urrutiratuak ez ba'dira. Euren artean beti izan oi dira, besteak baño ibiltari eskasagoak, eta beti azken ibiltzen diranak. Zu, nagusia zera, eta zuk etxeko-andre ta umeen ondoan gelditu bear dezu. Ni, morroya naiz, eta dariok gaizkatzeko alegiñak egiñ bearrean nago. Orrezaz gañetik, asmo au neurea da, eta baita ere neurea, bera egiteko eskubidea.

—Ua, ua, Nikita bulartsu oi, eta Jaungoikoa lagun daikela.

Nikita'k erantsi zuan txapela, egiñ zuan «Gurutze Santuaren» astiro-astiro, artu zituan sei zaldi eta ate ondora ekarri zituan.

—Nagusia, zabaldu atea apur bat.

Bogoslafe jaunak, zaldi bat igarotzeko lañi atea ireki zuan Nikita'k jo zituan lati-guakaz egiñ-alean da, zaldiok laster erten zuten kanpora. Bai Nikita'k atea ariñ itxi ere, zaldiak erten zutenaz batera. Ango orruak eta marruak, angó zalapartak eta angó astrapaladak!! Zer zan ura!! Alakorik!!

—Otso danak altxa ziran elur gañetik eta basetxe inguruan zeudenak danak bat egin zuten zaldiakaz gosea asetzeko asmoz. Zaldi gaxuak ostera, tximista beziñ ariñ etorri ziran bidetik euren eltxerantz, otso taldea ondoren zutelarik. Zaldiak bildurren egoetan zijoazen eta otsoak gosearenetan.

Iskanbilla ixildu zanean Nikita'k igo zuan zaldi gañera, agurtu zuan nagusia, kendu zuan txapela, egiñ zun herriro «kurutzte Santuaren» eta ate ondora joan zan.

—Ireki atea, nagusia, eta Jaungoikoak onetsi zaitzala, zeu, etxeko-andrea ta umeak.

Bogoslafe jaunak ere egiñ zun «Kurutzte Santuaren», zabaldu zuan atea, eta itxi ere bai bere morroi on ark kanpora erten zanean. Bai zeitekean Nikita gizafoak bere biziarekiñ ordaintzea, nagusi jaun eta sendiari zion maitetasua eta itzala.

Bogoslafe jauna zur egon zan ia ezer entzuten ote zun, baña zaldien pausa otsa basterik ez zen entzuten; geroxoago urrutiko zaunka ta orroa batzuek. Geroago ezer ez.

Ordu bi igaro ziran larritasunik bizienean. Beste zaratarik ez zan geiago entzun. Irugarren ordua ere igaro zen. Ezer-ere-etz oraindik.

«Joan egiñ bear det, esan zuan Bogoslafe jaunak, gure Nikita gizafoa otsoak jana da noski».

—Zaude oraindik, esaten zioen emazte ta umeak, zaude beste ordu betean bedere.

Bogoslafe jaunak itxaron zuan beste ordu betean da zaldia gertatzen asi zan emazte ta umeen bildur da negarrari jaramonik egiñ gabe.

Zaldi gañera igotzen asi zanean zarata bakan batek gelditu eraso zuan, «oraiñ ere beste otso talde bat!» esanaz.

Zarata geroago ta andiago, ta geroago ta urrerago. Pozeko dearrak eta irrintziak, garaikundeko ;Gorak'k! entzun zituzte-nean sendi gaxoak arnasa artu zuan. Igerri zuan ba Nikita zetorrela esanda bezela eskoltakiñ.

—Ireki atea, nagusi! deitu zun Nikita'k abots sendoaz.

Atea ireki zan; nagusia morroien besotan erori zan, da anaia bai-litzan besarkatu zuan.

Nikita, pozoz lertu bearrean zan. Zortzi zaldi berri ta indartsu lotu zizkioten zalgardiari: Bogoslafe sendia sartu zen barruan; Nikita exeri zan aurrean bere lekuan, eta zaldigurdiak tximista bezela erten zuan, berreun zaldun inguruan eta atzetik zitualarik.

Beste gora-bera gabe eldu ziran aitona zaarren etxera, eta onek, eskoltan joan ziran gizonari pattarra ta dirua eman zegioela agindu zun.

Nikita'k, egun berean artu zituan bere askatasuna ta diru pillo aundi bat. Baña nagusiari eskatu zion, lengo lekuan, here etxean, morroi jarraitzeko mesedea.

«Zu, nagusi on bat zera, ta ni, zoriortea naiz zure morroi izateaz. Zer egiñ nentzake bada lanik gabe? Amaikatxo astakeri egiño nitzuke lan gabe bizi bear ba nu».

Nikita, bada, Bogoslafe jaunen etxean gelditu zan bere bizi guztirako, ta morroi moduan baño lagun moduan erabili zuten.

«Orra amaitu» esan zun Leonce'k bekokia legortuaz. Ipui kontatzeak berua ematen du gero, e?

Pierre'k.

—Aizu, zeuk asmatua alda?

Leonce'k.

—Dana ez; orren antzeko ipui bat, beñ irakurri egiñ nuan, eta gero neuk atondu det, esanaz batera.

Elisabeth'ek.

—Zein ederra den zure ipuia, ta baita bildurgarria ere, zeuk asieran esan dezun bezela. Baña, nun dira ba artzak? Bat bakarrik ere ez degu ikusi.

Leonce'k.

—Ori beste ipui bat da, nere ustez,

Baña otsoena luzea izan da ta nekatu egiñ naiz.

Sophie'k.

—Esan egiguzu ia otsoak zaldi kottauak jan zituzten ala ez.

Leonce'k.

—Aizu, ez det pentzatu ere. Nai-ta-nai-iz jan bear al zituzten bada?

Jaques'k.

—Ez, ez, abere gaxuak! Gaizkatu (7) egiñ bear dira.

Leonce'k.

—Ezin ordea danak gaizkatu. Lau bakarrik eldu ziran etxera, eta beste biak ez ziran agertu. Augaitik pentzatu gentzake atxek biak otsoak jan zituztela.

Jaques'ek.

—Ni aserratu egiño gaizkatu. Ipuia zeorrek asmatu dezun ezkerrez, ez daukazu seirak etxeratu zirala esatea baño, ta, kitto.

Leonce'k.

—Ez izan ordea sinistekoa. Pentza. Bost eun otso sei zaldiren ondoren. Bi bedere jan bearko dituzte.

Henriette'k.

—Ez, Leonce, ez, jarren! danak gaizkatu egizuz!

Leonce'k.

—Tira bada. Orain beste era batera amaitzen det nere ipuia eta diot, sei zaldioek oso indartsu zeudela, Nikita'ri eskerrak, ondo zaitu zitalakoz eta ondo jaten eman, eta otsoak geitxo urreratzen ziranean, ematen zizkioten ostika dagoz matrall-egurak apurtu ta ankaz-gora botatzen zituztela, ta onetara batzuek iges-egitū zuela ta iges-egitū ez zutenak basoan illda gelditu zirala. Bele, buzoka ta beste onelako egazkiak jan zituztela euren gorputz-illak. Uste det guztioek pozik izango zeratela ipuien amaiera zeriontsu onegaz.

Ume danak parre egitū zuten, eta nekez etorri zitzaizten biaramona beste ipui bat entzuteko.

ARRITOKIETA

15-IV.-1959.

COMTESSE DE SEGUR

née Rostopchine'k egindako «Les loups et les ours» etik euzkeratua.



(7) Salbatu.

EIHERA SEMEA

An urrun, duela ainitz urte, senar-emazteak bizi ziran eihera xabar batean; semea bakarra zeukaten, Kurtin zeritzana. Naiz guraso naiz seme, zori ontsu ziran osoki, egoitza gaixo artan lan egiñez, polliki baitzenden guziendako ogia ta zer-jana irabaziz. Bai, aitamak batez ere, poz-esnetan bizi ziran, beuren seme gaztea, eihera-lanari gotik lotu ta nola saila oi zan ikusiz.

Negu buluzta eldu zanean, ordea, eihera xabarraren besoak bat-batean gelditu ziran, eta ango egoilarrak izango zuten aurki naitzela ta bearra. Aurretik ez omen zuten sekula olako urritasunik ezagutu, ez bait-zan nehun ere ogi, garagar ez olorik ikusten. Inork ere, jadanik, ez zieten ereman oi bihi zaku bat bera. Zoritxar zigorra, egiaz, gainez gain zebilkioen.

Goiz batez, supazter-xokoan zeuden guztiak eserita; Kurtin'ek, etxean zeuzkaten jan-orniak aitu-urten zirala-ta, beren aita-mei esan zien:

—Mingarri zait, aita; baina, nai ta ez, negurako dauzkagun jan-apurrak bukatu orduko, lan billa atera bearrean naiz.

Aitak ez aditzen Kurtin'i? Ez zion ezer erran, beindik bein; adi-adi zegon negarra zerion emazteari.

—Ez zazu negarrik egin, ama —gazteak goxo amari—; laister itzuliko naiz, eta orduan...

—Oa, seme, ta Jainkoak argi zaitzala.

Eihera semeak, agitz erabakitsu, goiz artan bertan utzi zuen gurasoen etxea; jantzi batzuk eta zorro tiki bat, janariz bete, bizkarrean zitularik, ba-zoan bidez-bidez, auzoko irirat, lanaren billa.

Bidaldi latz-luzea arduraz egiñik, arkaitz baten ondoan eseri zan gure mutikoa, atsaren gainean jartearren. Itsumustuan, aize zakar otza xistuka zai zan oihan zuhaitz artean, adarrak asko hurrera eror-aziz; Kurtin jaiki eta sasi artetik zear, an urbil zegen leizeño batera zuzendu zan; bazter batean etzan eta lokartu zan bertarik. Andik laister, karraxi oies batzuk eten zuten gaztearen lo-aria, ta, izu-lauorri, leize-bazter baten gorde bear izan zun bere burua.

Leizearen ondarretik gizaseme gotor, itsusi, bilo luze ta atzapar kakoduna ilki zan; eta aren ondotik, beste gizaseme bat eta irur emazteki; emaztekiak, berriz, soineko beltzez jantziak zijoazten, eskuan isatsa.